

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

249/20 prozedura laburtuan epea jartzea

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 2. epaitegian administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (249/20 zenbakiko prozedura laburtua) izapidetzen ari da; 16246739E nortasun-agiria duen pertsonak aurkeztu zuen errekurtsoa, Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko maiatzaren 15ean hartutako erabaki baten aurka, zeinaren bidez Vitoria-Gasteizko Udaleko funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmenaren 86., 87., 88. eta 89. artikulua eta lan-kontratudun langileei dagokien eranskina aplikatzea urtebetez eteten baitzen, baita Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak 2020ko ekainaren 2an emandako ebazpenaren aurka ere, zeinak behin betiko baja sustatua ezesten baitu. Hortaz, horretan interesdun direnei ager daitezen deitzen zaie, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1 artikuluari jarraituz; bederatzi eguneko epea izango dute horretarako, lege beraren 23. artikulua ildotik.

Epe-jartze formalaren balioa izan dezan, hauxe eman eta sinatzen dut.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 28an

Udal legelaria

RICARDO SOLAUN GONZÁLEZ